

PROGRAMA

Elkarlanaren
indarra

Ahal Dugu PAMPLONA
PODEMOS.

Indizea

Elkarlanaren indarra	6
Partaidetza	10
Etxebizitza.....	13
Mugikortasuna	17
Hiri jasangarria	20
Berdintasuna.....	23
Turismoa	27
Gardentasuna	29
Ingurumena.....	31
Ezgaitasuna.....	34
Osasuna	37
Gizarte-zerbitzuak.....	40
Enplegua	44

Enplegu publikoa.....	47
Merkataritza	49
Ondarea	52
Kultura	54
Haurrak.....	57
Memoria historikoa.....	59
Kirola.....	61
Hezkuntza	64
Gazteak.....	67
Komunitatearen garapena	71
Bizikidetzeta eta hiritarren segurtasuna	74
Garapenerako lankidetzeta	77

ELKARLANAREN INDARRA

“Elkarlanaren indarra” aukeratu dugu lelo gisa **Iruñean aurkezteko lehenbiziko aldiz. Ez dugu nahi UPNk eta PSNk berriro gobernatzea Iruña**, berdintasun ezako eta espekulazioko politikak baitakartzate haiekin, ongizate komunaren aurka.

Iruñerako dakargun **programa bizirik** dago; izan ere, herritarren garapenaren eta behar sozialen aldaketen arabera alda daiteke. **Indar, ilusio eta konpromisozko mezua** zabaldu nahi dugu, eta, horretarako, jende askoren eskariei entzun. Konpromiso horrekin, udalean sartuko da AHAL DUGU, iruindar guzti-guztien **eskubideak erdigunean** jartzen dituen **politika zintzo eta ardurat-suak** egiteko.

Osagai horiekin guztiekin gure hiriko sentsibilitateak biltzen dituen programa ireki bat sortu dugu **partaidetza** bidez, hainbat gizarte-eragile, kolektibo, auzoko elkarte eta beste esparru batzuetako elkarteen laguntzaz.

Hiriaren erdiguneak bizi duen **gentrifikazio-prozesua gelditu eta irauliko dugu**, eta **mugikortasun jasangarria bultzatuko** dugu; izan ere, azken legealdiko bi gai nagusietakoak izan dira, baina ez da nahikorik sakondu.

Alde zaharraren turistifikazioak kezkatzen gaitu: berekin dakarren **elitizazioak** eta bertan bizi direnei eragiten dizkien kalteak. Hala ere, ezin diegu aldirietako auzoei ez ikusi egin, bertan ere arazoak baitituzte: **etxe-desjabetzeak**, pobrezia energetikoa, etxebizitzako baliabide publikoetan **gizarte-zailtasunak dituzten pertsonak** pilatzea, kalitate txarreko enplegua, mendekotasun-kasuetan babesik gabe gelditzearen beldurra edota mikroenpresen bideragarritasuna.

Horregatik, **AHAL DUGU IRUÑAK ekonomikoki eta sozialki jasangarria den hiri** baten aldeko apustua egiten du, eta horrek sufrimendu sozialeko adierazlerik altuenak dituzten auzoetan neurriak hartu eta dirua inbertitzea dakar, **berdintasun sozial ezarekin amaitzeko**. Onartezina da, iruindarren osasunari dagokionez, posta-kodeak kode genetikoak baino pisu handiagoa izatea; alegia, zabalguneko batek Errotxapeako bizi-itxaropen handiagoa izatea. Egoera hori, Estatu Batuetako hiri batzuetan gertatzen omen dena, ez da bidezkoa, ezta duina ere; eta ez dugu toleratuko.

Emakume-gizonen arteko berdintasuna eta kutsadura eta erregai fosilak murriztearen inguruko Europako eskakizunei jarraitzen dioten **mugikortasun-planen bidez ingurumena eta jasangarritasuna** sustatzea dira gure oinarrizko beste ardatzetako batzuk. Horrez gainera, modu irisgarriagoan **lotu nahi dituzu auzoak oinezkoentzat**.

AHAL DUGU IRUÑAK lurralde guztien eskubide linguistikoak defendatzen ditu, eta **elebitasuna sustatzen du Iruñean**. Gure hirian, eskuinak asko zigortu du ondare aberats hori, nahiz eta Europako erakundeek behin baino gehiagotan jarrera hori gaitzetsi eta euskara babestu eta sustatzeko eskatu.

Iruñeak **memoria historikoaren** legea betetzeko ekintzetan sakondu behar du: normalduta ditugun erregimen frankistaren aztarna guztiak ezabatu behar dira, eta gure komunitateak bizi izan duen tragedia garaikide nagusia-

ren biktimak berreskuratu —3.600 eraildako, zeinetarako oraindik ez den egon erreparazio erabatekorik—. Memoria historikoaz jarduteak, era berean, terrorismoaren **biktimizez** hitz egitea dakar, merezitako aitortpena egiteaz bereziki. Izan ere, biktima horiei ere zor zaie **memoria, justizia eta erreparazioa**.

Halako eta partaidetza bidezko prozesuan sortu diren bestelako gai asko bultzatzeko aurkeztuko gara Iruñean. AHAL DUGUk asko hausnartu eta ikasi du azken urteotan. Alderdi arduratsua gara, eta antolatzeraz eta Iruñeak merezi duen aldaketa sozialean aktiboki parte hartzeraz deitzen ditugu herritarrak.

Programa honetan esku-hartze ildo nagusiak azaltzen ditugu. **Zure auzorako** zehazki proposatzen ditugun neurriak ezagutu nahi dituzu? Jarrai iezaguzu sare sozialetan (Facebook eta Twitter) haiek ezagutzeko.

Zure zain gaude.

PARTAIDETZA

Erabaki politikoak, herritarrei eragiten dietenak, ezin dira mugatu alderdi politikoaren arteko elkarrekintzara: herritarrek aktiboki parte hartu behar dute proposamenekin, iritziekin eta ekimenekin. Demokrazian, erabaki politikoak hartzeko, entzun egin behar da, eta ahalik eta ikuspegi gehien aintzat hartu. Aniztasun hori beti, inklusiboki eta zuzenean integratzen duen demokrazia da bizi-kalitatea hobetzeko sistemarik onena: berdintasun ezaren aurka egiteko onena; justizia- eta berdintasun-kuota hobek lortzeko onena, eta komunitatearen helburuak zein pertsonalak modu aske eta duinean erdiesteko onena.

- 1.** | **Asanbladak sortuko dira auzoetan**, foroetatik abiatuta, eta, ondoren, herritarrekin adostuko da haien egitura, funtzionamendua eta eragin-esparrua. Horrela, herritarrek zuzenean parte hartu ahalko dute erabakietan, eta udal-gobernuaren ekintzak zuzenean fiskalizatu. Udalaren kudeaketari eta hark auzoetan duen eraginari buruzko informazioa atzitzeko aukera izango dute asanbladek; baliabide horiekin, udal-gobernuak kontuak emango ditu aldizka.
- 2.** | Partaidetza bidezko aurrekontuak auzoka: auzoetako asanbladek **araudi ofiziala** onartuko dute, udal-aurrekontuaren zati bat asanbladek eurek onartutako partidetara bideratua izan dadin. Hala, aurrekontuak partaidetza bidezkoak izango dira bai idazketan bai aplikazioan.
- 3.** | **Udalaren partaidetza-prozedurak ahalbidetuko ditugu**, eta pertsona guztientzako berdintasun-baldintzak bermatuko ditugu. Gizartea demokratizatuko bada, emakume eta gizonek berdintasunean eta bete-betean parte hartu ahal izatea bermatu behar da, eta, horretarako, adin tarte guztietako jendea eta ezgaitasuna duten pertsonak hartu behar dira kontuan.
- 4.** | **Zuzeneko komunikazio-kanal irisgarriak** ezarriko ditugu jendearentzat, kexak eta iradokizunak jaso nahiz ekintzen eta zerbitzuen inguruko informazioa emateko.
- 5.** | **Teknologia berriak sustatuko ditugu partaidetzarako tresna gisa**. Haien bidez, jendeak askotariko informazioa

jaso ahalko du, esaterako: herritarren arteko bizikidetzarako gidak, hondakinak birziklatzeari buruzko informazioa, bideko zirkulaziorako gidak, gizatasunari buruzko informazioa, udal-funtzionamenduari buruzkoa, gardentasunari buruzkoa, etab. Horrez gainera, teknologia berri horiek instalatu eta erabiltzea sustatuko dugu.

6. Herritarren eskubidea da administrazioarekin harremana izatearena. Herritarrei haien eskubide eta betebeharren berri emateko beharra dauka administrazioak.

ETXEBIZITZA

Etxebizitzarena **giza eskubide** bat da; ez kontsumo-ondasun bat. Errenta banatzeko politiken tresna gisa kudeatu behar da etxebizitza. Horregatik, egiten diren politikek etxebizitza duin bat izateko eskubidea eta aukera bermatu behar dituzte, bai eta oinarrizko argindar- eta ur-hornikuntza izatekoa ere, halakorik ordaindu ezin duten pertsona eta familientzat.

Etxebizitza publikoen kopurua handitu

7. **Hiria osatuko dugu, aldirietan auzoak sortu beharrean.**
Hiria trinkotzen badugu, administrazioak eskaini beharreko baliabide eta zerbitzuen erabilera optimizatuko dugu; autoarekiko mugikortasuna saihestuko dugu, eta “zero kilometroko” kontsumoa sustatuko dugu auzoko denden bidez, denda txikien bidez.
8. **Zoru publikoa lagako dugu cohousing proiektuetarako.**
Horrela, belaunaldi arteko elkarbizitza-proiektuak sortuko dira, eta haietan bizi den jendeak elkarlanean egingo du kudeaketa. Horretarako, adin guztietako jendeak erabiltzen dituen instalazioak planifikatu beharko dira, eta elkarbizitzarako espazioak sortu. Halaber, xeheki aztertu beharko dira finantzazio-sistema eta gastuen banaketaren sistema.
9. **Zoru publikoa lagako dugu erabilera-lagapenaren bidez funtzionatzen duten etxebizitza-kooperatibetarako.**
10. **Etxebizitza berrien % 30 alokairu-erregimeneko Babes Ofizialeko** Etxebizitzetarako gordetzera behartuko ditugu promotoreak.
11. **Etxebizitza publiko eta sozialen kopurua handituko dugu**, baita larrialdi-egoeretarako gordetakoena ere (adin gutxikoentzat, indarkeria jasan dutenentzat, mendekotasunera erorientzat, etxerik gabe utzi dituztenak...). Ezin bada pertsona batzuen etxegabetzea gelditu, etxebizitza alternatiba egokia bermatuko zaie. Etxebizitza sozialen kopurua handitzeko, isunak jarriko zaizkie bankuek dituzten pisu hutsei, eta alokairu sozialeko etxebizitzak eraikiko dira.

12. | Etxabe eta lokal komertzialei etxebizitza-erabilera emateko administrazio-izapidea erraztu eta bizkortuko dugu.
13. | **Erostearen gaintik alokairuak dituen abantailez** kontzientziatuko ditugu gazteak, ez baitago lehenbiziko aldiz independizatzen diren unetik maileguekin zorpetzeko beharrik. Horretarako, kanpainak egingo dira, eta, horietan, laguntza-neurriak eskainiko zaizkie gazteei, EmanZipa planaren ildo beretik, haien errealitate ekonomikoarekin bat datorren alokairu bati aurre egin ahal izan diezaioten.
14. | **Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea aplikaraziko dugu mailegatutako etxebizitzaren transakzioetan** baldin eta etxebizitzotan ahuldade-egoeran dauden familiak bizi badira, 10/2010 Foru Legean, maiatzaren 10ekoan, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzkoan, araututakoaren arabera.
15. | **Etxebizitza-eskubidearekin aldeko aktibistekin batera plan bat** prestatuko dugu, arazoari aurrera egiteko denok batera.

Etxebizitza publikoaren bulegoa sortu

16. | **Negoiazio-mahai bat antolatuko dugu finantza-entitateekin, funts putreekin eta jabe handiekin** eta, bertan, eskatuko diegu mailegua edo alokairua ordaindu ezin duten familiei haien etxeetan geratzen uztea alokairu sozialeko erregimenean. Udalak publikoki salatuko ditu negoziatziorako biderik zabalitzen ez duten finantza-entitateak, funts putreak eta jabe handiak, eta presio-neurriak aztertuko ditu; esaterako, banku-entitate horiek erabiltzeari uztea.

17. | Udalarekin batera **alokairuaren merkatua arautzeko neurria har ditzan** eskatuko diogu Nafarroako Gobernuari.
18. | **Alokairua ordaintzen ez dieten jabe txikiak artatu eta lagunduko ditugu, eta kasuen segimendua egingo dugu.** Horretarako, funts foralarekin batera lan egingo dugu.
19. | Etxebizitza publikoen kopurua handitzeko neurriak hartuko dira.
20. | **Gaztek lagundu eta aholkatuko ditugu**, eta alokairurako izapideak eta kudeaketak erraztuko ditugu.
21. | **Tutoretzapeko etxebizitzan eta etxebizitza irisgarrien** alokairu-plana eskainiko diegu hala eskatzen duten eta ezgaitasunen bat duten pertsonei.
22. | Zoru publikoa etxebizitza sozialak eta alokairurako etxebizitzak eraikitzeko erabiliko da..

MUGIKORTASUNA

PSNren eta UPNren azken hamarkadetako hirigintza-antolamenduko planek hiri barreiatu bat sortu dute: hiria ibilgailu pribatuen mende dago; Iruñeko autoaren erabilera-indizea Gasteiz, Donostia, Zaragoza eta inguruko beste hiriburu batzuetan baino askoz handiagoa da; oinezko mugikortasuna, bizikleta eta garraio publikoa, berriaz, horietan baino gutxiago erabiltzen dira.

Mugikortasunaz ari garenean, ezin dugu ahaztu Iruñeaz harago doan eskualde batean gaudela; beraz, inguruko udalekin batera lan egin beharko dugu mugikortasun jasangarriko politika bateratuen alde.

Eskualdeko udalerrien arteko oinezko eta txirrindularientzako konexioa oso kaskarra da. Garraiobide publikoek badute, dudarik gabe, zer hobetu. Jendeak autoa alde batera utzi eta mugikortasun jasangarriaren aldeko apustu argia egitea nahi badugu, hori ahalbidetuko duten neurriak hartu beharko ditugu adostasunean, eta herritarrek neurri on abantailez konbentzitu beharko ditugu.

Hori dela eta, honako hauek proposatzen ditugu:

23. **Mugikortasun jasangarriko udal-plana** martxan jartzea. Plan hori aspaldi planteatu zen Iruñerriko Mankomunitatean, eta eskualdeko garraiobide publikoak sustatuko litzuzke.
24. Udalerrien arteko eta Iruñearen eta udalerrien arteko **villavesaren konexioak, ibilbideak eta maiztasuna hobetzea**.
25. **Taxiaren erabilera sustatzea** garraiobide-eredu prekari-zatuen gaineratik.
26. Bizikletaren erabilera bultzatu, hauen bidez:
 - a. Auzoen eta eskualdeko udalerrien arteko **txirrindularientzako errail** onak sortzea.
 - b. **Bizikletak aparkatzeko toki estali** eta seguruak eraikitzea hiriaren zenbait puntutan: ospitaleen zonaldean, unibertsitateen inguruan, alde zaharrear.
27. Oinezkoentzako ibilbideak garatzea, hauen bidez:
 - a. Eskualdeko udalerrien arteko **oinezkoentzako ibilbideak**. Auzoen arteko oinezkoentzako ibilbide hobek.
 - b. Oinezkoentzako korridoreak auzoetan eskoletaraino, zeharkako ardatzak, Donibanen Martin Azpilikueta dagoen bezalaxe.
28. Hirigunean autoen erabilera saihesteko neurriak:
 - a. Udal mugakideekin itunak sinatzea, **aldirietako aparkalekuak** eraikitzeko hiriaren kanpoaldean (zenbat eta erdigunetik hurbilago, orduan eta tarifa altuagoa).

- b. Anezkak** eskaintzea aldirietako aparkaleku horietatik erdigunera edo ospitaletara.
- c. Udal barruko garraiobide publikoko tarifak murriztea** egoiliarrei. Bonu sozialak berrikustea.
- d.** 25 urte baino gutxiagokoentzat bonua doan izatea sustatzea.
- e. Oztopo arkitektonikoak** kentzea; oinezkoek gehien erabiltzen dituzten zonaldeak oinezkoentzat soilik uztea.
- f.** Oinezkoentzat eta ezgaitasuna duten pertsonentzat **eraginkorrak diren pasabideak** bermatzea.
- g. Zirkulazioko gehieneko abiadura murriztea**, eta **garraiobide ekologikoa** sustatzea bide-heziketako zentroetan.

HIRI JASANGARRIA

Hiri konpaktu eta anitzaren eredua da jasangarritasunaren helbururako onena informazioaren garai honetan. Ereduek hiriaren barrualdearen konplexutasuna gartzeko aukera ematen du, eta, horixe da, hain zuzen ere, gizarte-bizitza kohesionatua eta plataforma ekonomiko lehiakor bat lortzeko oinarria.

- 29.** | **Aldirietako auzoetan inbertitu eta neurriak hartuko ditugu** hiri kohesionatua lortzeko.
- 30.** | Mugikortasunerako eta zerbitzuetarako azpiegiturak: **“30eko hiria”** kontzeptuan aurrera egingo dugu, eta **garraio bidearen piramidea** alderantzikatuko: oinezkoa > bizikleta > garraio bide publikoa > ibilgailu pribatua.
- 31.** | **Karbono-aztarna murriztuko dugu** esku-hartze pasiboko neurriekin (zola fotokatalitikoak) eta autosufizientzia energetikoa handituta.
- 32.** | **Hiriaren kalitatea handituko dugu, eta ingurumen-inkarnera murriztu.** Horretarako, hiria “supersagarretan” banatuko dugu. Horien barruan, propio bultzatuko dira hauek, besteak beste: ibilgailu motordunen trafikoa ahalik eta txikiena izatea; kaleko ahalik eta aparkaleku gutxien egoitea, eta oinezkoek lehentasuna izatea espazio publikoan. Ibilgailu motordunak bide perimetraletatik ibiliko dira, eta sagarraren barrualdeko kaleak, aldiz, oinezkoentzat, egoiliarren ibilgailuetarako, zerbitzuetarako, larrialdietarako eta karga- zein deskarga-lanetarako izango dira.
- 33.** | Hiriaren zonalde guztiak neurri berean estaltzen dituen **Villavesa-sarea** bultzatuko dugu: batetik, lineen arteko **konexioak hobetuko ditugu**; bestetik, lineen **irisgarritasuna** hobetuko dugu, eta, azkenik, herriko garraio sarea sinplifikatuko dugu helmugara iritsi ahal izateko ahalik eta gutxien aldatuta lineaz.
- 34.** | **Ekoauzoen plana** bultzatuko dugu auzo guztiak pixkanaka-pixkanaka eraldatzeko. Plan hori kalitatezko espazio publikoetan datza, non oinezkoek lehentasuna duten. Horrela, lantokia eta etxea hurbilago egongo dira, auzoko dendak eta tailerrak sustatzen baitira.

35. | **Berdeguneak**, parkeak eta lorategiak hobetu eta handituko ditugu.
36. | Auzune guztiak berritu, birroneratu eta suspertuko ditugu. **Alde zaharraren gentrifikazioa saihestuko dugu.**
37. | **Ontzien ordenantza ezarriko dugu** ontziak berrerabiltzea sustatzeko pizgarrien eta zergen bidez. Hondakinak birziklatu eta banatzea bultzatzen duten bidezko tasak jarriko ditugu. Ontziak utzi eta itzultzeko sistemak probatzen hasiko gara.
38. | **Zarata-mapa** eguneratuko dugu akustikoki itota dauden zonaldeak identifikatu eta zarata-ordenantza betearazteko. Halaber, aipatutako ordenantza eguneratuko dugu.
39. | **Hiri-baratzak eta “zabaltza berdeak” bultzatuko ditugu**, herritar konprometituek beren elikagaiak hazi ahal ditzaitezten.
40. | **Elikagaien burujabetza babestuko dugu:** inguruotako jatorrizko produktu ezagunak bultzatuko ditugu.
41. | **Eskolarako bide** seguruen sarea sortuko dugu, zeinak ibilbide eta jarduerak eskaintzen dituen haurrak eskolara modu seguruan hel daitezten.
42. | Aplikazio baten bidez **partekatu ahalko diren auto elektrikoak** eskuratu eta bultzatuko ditugu; autook aparkatzea doan izango da.
43. | **Txakurrentzako parke** gehiago sortuko ditugu, eta daudenak berrikusi.

BERDINTASUNA

Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legeak arautu badu ere, ezinbestekoa da alderdi politikoek konpromisoa hartzea. Horrela, berdintasunak politika guzti-guztiak bustiko ditu, udalaren garapenak modu berean integratuko ditu emakumeak eta gizonak.

- 44.** | Iruñeko Udalaren **aurrekontuaren % 1 berdintasuna** sustatzeko izan behar da; alegia, baiezko politiketarako eta ekintza positibo nahiz zeharkakoetarako.
- 45.** | Erabakiak hartzen dituzten politikarien **berdintasun-gaie-tako heziketa** bermatu behar da.
- 46.** | **Ezgaitasunaren ikuspegia** aplikatu behar da politika, arau eta berdintasun-plan guztietan.

Zaintza, erantzunkidetasuna eta kontziliazioa

Emakume politikari guztien bizitza erdigunean jarri behar dugu; izan ere, harreman estua dago giza bizitzaren eta bizitza orokorrean garatzeko esparru jasangarriaren artean. Herritarrak ardua sozial, kolektibo, komun eta publikoa dira.

- 47.** | **Erakunde Publikoen Itun** bat bultzatu eta onartuko dugu, zainketei balioa ematen dien etika berri batean oinarritutako ekintza politikoa eraiki eta garatzeko (zaintza ezinbestekoa baita gizartea garatzeko).
- 48.** | **Zaintza-espazioak** abian jarriko ditugu herritarren zaintza-beharrei eta bizitzeko beharrei erantzuteko moduan. Auzoz auzo aplikatuko ditugu Kontziliazio Itunak.
- 49.** | **Amatasun partekatuaren inguruko kontzientzia** hartze-ko kanpainak egingo ditugu.
- 50.** | **Hazkuntza-espazioak** sustatuko ditugu.
- 51.** | Hiriko **nagusiak eta mendekotasuna duten pertsonak** zaintzeko **hurbiltasun-zerbitzuen** sarea bermatuko dugu. Halaber, laguntzarako komunitate-sareak eta talde autokudeatuak indartuko ditugu.

52. | Zaintza modu bidezko eta sozialagoan banatu behar da, eta, horretarako, haurren, nagusien, mendekoen eta zaintzaileen **zaintza hezitailerako udal-baliabideak** handituko ditugu.

Emakumeak ahaldu eta emakumeen parte-hartze sozio-politikoaren sustatzea

53. | **Emakumeen elkarteei eta mugimendu feministari** laguntzeko plan bat martxan jarriko dugu: mugimendu feminista babestuko dugu, eta harekin elkarlanean aritzeko espazioak sortuko ditugu.
54. | **Ahalduntze-eskola iraunkor** bat sortuko dugu emakume eta neskeentzat.

Indarkeria matxista

55. | **Irisgarritasun-irizpideak aplikaraziko ditugu** indarkeria matxista hauteman eta jorratzeko zerbitzu, baliabide eta informazio-gune guztietan.
56. | **Genero ikuspegidun eta ikuspegi interseksionaldun ezgaitasunari eta irisgarritasunari buruzko formazioa eskainiko diegu** indarkeria matxista artatzeko baliabideetan aritzen diren profesional guztiei.
57. | Ezgaitasuna duten emakume eta neskei begira, **indarkeria matxistaren aurkako neurri espezifikoak inplematuko ditugu**. Izan ere, ikerketen arabera, ezgaitasuna duten pertsonen indarkeria matxista bortitzagoa jasaten dute, eta denbora luzeagoaz.

58. | Ezgaitasuna duten emakume eta nesken aurkako **indarkeriari buruzko ikerketak** sustatuko ditugu, eta horiek zabalduko direla bermatuko.
59. | Indarkeria matxistaren biktimak berehala artatzeko baliabideak eskainiko ditugu; biktimon segurtasuna eta independentzia ekonomikoa bermatuko dugu.

Administrazioa eta erakundeen antolaketa

60. | Langileak eta politikariak berdintasunean trebatuko ditugu (**hizkera inklusiboa**, genero ikuspegidun eta ikuspegi interseksionaleko aurrekontuak, etab.); horrela, modu erreal eta eraginkorrean inplementatuko da berdintasun-plana.
61. | Kontratazio eta azpikontratazioetan, **lanaren banaketa sexuala** desagerraraziko dugu.
62. | Mendekotasuna duten senideak zaintzeko **lan-baimenak** edo zerga-arintzean emango dizkiegu administrazio publikoko langileei, erakunde eredugarri gisa.
63. | **Hezkuntza-zentroak eskola-ordutegiaz kanpo funtzionatzea bultzatuko dugu** helduak seme-alaben zaintzaren eta berdintasunezko heziketaren inguruan trebatzeko.

TURISMOA

Gure ustez, **turismoak garapen ekonomiko jasangarriago eta banatuagoa ekar lezake hirira**. Ahal dugu Iruñak uneko eredu turistikoaren mugak hauteman ditu –sasoia- ren araberakoak eta alde zaharrea masifikatua-, eta arazok konpontzeko lan egin nahi du: urte osoan zeharreko egonaldi luzeagoak sustatzen dituzten politikak aplikatu nahi ditugu. Horregatik, uste dugu garrantzitsua dela Nafarroako Gobernuarekin batera lan egitea: batetik, Europako nazioartera begirako proiektuetan parte hartu, eta, bestetik, hiriko ostatuak modu orekatuan sustatu.

Horretarako, ekintza hauek proposatzen ditugu:

- 64.** | **Pisu turistikoak** arautzen dituen ordenantza berrikus-
tea hiriaren zenbait zonalderen gentrifikazioa gelditu eta
egoerari buelta emateko.
- 65.** | Turismorako, herritarrentzako eta auzoak dinamizatzeko
bi une inportante sortuko ditugu:
- a.** Asteburu bateko **jaialdi kultural** bat. Jaialdiak kultu-
raren adar guztiak bilduko ditu, auzoetako plazetan
kokatuko da eta zonalde bakoitzeko komertzioak eta
kolektiboak hartuko ditu kontuan.
 - b. Nazioarteko graffiti-lehiaketa** bat. Horrek, auzoe-
tako etxe-aurre zigortuenak berritzeaz gain, san-
ferminez haragoko une turistikoak sortuko ditu,
Tuterako Avant Garde jaialdiaren ereduari jarraikiz.
- 66.** | **Turismo jasangarria sustatuko dugu auzoak dinamizat-
zeko**; bereziki, **Done Jakue bidean** dauden eta laguntza
txiki bat behar duten auzoak. Horretarako, ostatu-enpresa
txikiak sortzeko laguntzak egon litezke.
- 67.** | Urte osoan zeharreko **turismo egonkorra** bultzatuko
dugu: turismo kulturaleko eta sormenezko aisialdiko es-
kaintza indartu. Horretarako, Iruñeko artisauekin, musika-
riekin eta kultura biziaren bestelako eragileekin batera lan
egingo da.
- 68.** | Adingabeak aintzat hartzen dituen **familia-turismoa** bult-
zatuko dugu: kirol-jardueren edota haurrentzako jolasen
bidez hirigunea, gizartea eta natura ezagutzeko aukera
eskaintzen **ekintzak proposatu hirigunean zein ingurue-
tan**.
- 69.** | Autokarabanetarako area bat edo **aparkaleku** eskusibo
bat proiektatuko dugu hiriaren irteeraren edo sarreraren
batean.

GARDENTASUNA

70. | **Udal garden** bat eraikitzea herritarrentzat. Udal garden horrek **demokrazia zuzena ahalbidetu eta sustatuko du**, gastu publikoaren lehentasunak finkatuko ditu, arazoak diagnostikatuko ditu eta erabakiak hartuko ditu.
71. | **Gobernu Oneko Batzordea sortzea udal-gobernukoak ez diren pertsonekin.** Kontseilu horrek udalaren beraren eta bestelako udal-organoen ekintzak ikuskatuko ditu sistematikoki. Hala, herritarren interesak zainduko ditu, ustelkeriako edo jardunbide okerreko susmo guztiak ikertuko ditu eta eraginkortasun eza salatuko du.
72. | Politika ilun eta opakua alde batera uzten dituzten gardentasun-neurriak udalean. **Gardentasuna eragile pribatuen eta administrazioaren arteko harremanetan.**
73. | **Gardentasuna udal-kudeaketaren esparru guztietan.** Aurrekontuak argitaratuko ditugu, ahalik eta xehetasun gehienekin. Fakturak eta kontratu txikiak argitaratuko ditugu. Aurrekontuaren desbideratzeak argitaratuko ditugu. Hautetsien eta funtzionarioen ordainsariak argitaratuko ditugu modu anonimoan.

INGURUMENA

- 74.** | **Hiri-baratzak** sustatuko ditugu auzokideek belaunaldi ar-
teko espazio kolektibo propioak kudea ditzaten.
- 75.** | Ahalik eta denbora laburrenean **Energia-enpresa publi-
koa** martxan jartzeko bideak aztertuko ditugu.
- 76.** | Konpostajearen, hiri-baratzen eta lorategietan zein garbi-
ketan ur gutxiago erabiltzearen alde egiten dugu: hiri-ba-
ratzen inguruan konpost-ontzi publikoak jarriko ditugu.
- 77.** | Txakurrentzako parkerik ez duten **zitadelaren zuloetan
hiri-baratzak** jarriko ditugu, eta **merkatu bat sortuko
dugu bertan ekoizten diren produktuekin.**
- 78.** | Berdeguneak eta bioaniztasuna: **hirigintza ekologikoaren**
ikuspegitik, hiriko berdeguneak hegazti-fauna erakart-
zeko moduan antolatu behar dira. Horregatik, elementu
naturalak hobeto iragazten dituen hiri bat nahi dugu, eta
herritarrei berdegune gehiago eskaini nahi dizkiegu.
- 79.** | Daukagunari merezi duen balioa eman behar diogu: **Mag-
dalenako baratzak** bultzatuko ditugu, eta **Aranzadikoak**
berreskuratu.
- 80.** | Eredueko energetikoa aldatu behar dugu. Horregatik, honako
hauek proposatzen ditugu:
- a.** **Plaka fotovoltaikoak instalatuko ditugu udal-eraiki-
netan** pixkanaka-pixkanaka.
 - b.** Ordenantzak egokituko ditugu **eraikin pribatuetan**
energia ekoiztuko duten **eguzki-plakak** instalatzea
baimentzeko.
 - c.** Autokontsumo elektrikoa, etxebizitzaren berritze
energetikoa eta kooperatiba energetikoak sustatuko
dugu, eta, horretarako, udal-aurrekontuetan **lagunt-
za zehatzak** aurreikusiko dugu.

- 81.** Iruñerriko Mankomunitatearekin batera lan egiteko neurriak:
- a.** Uraren arazketa hobetuko dugu; besteak beste, prebentzioa egingo dugu, drainatze jasagarria sustatuko dugu eta ura erabat banatzen duen sarea hiri osora zabalduko dugu.
 - b.** Bertako **iturriak** (Arteta eta Eugi) babestuko ditugu baliabideen erabilera estentsiboaren aurka; izan ere, horiek dira gure ondare hidrikoa.
 - c.** **Ur-kontsumoa murriztuko dugu lorategi eta parkeetan.**
 - d.** Iruñerriko Mankomunitateak **gai organikoaren bilketa selektiboa eta konpostajea** sustatuko du.

EZGAITASUNA

Ezgaitasuna termino orokor bat da, eta barne hartzen ditu urritasunak, jarduerak egiteko mugak eta parte hartzeko oztopoak. Urritasunak gorputzeko egitura edo funtzio bati eragiten dioten arazoak dira; jarduerak egiteko mugak ekintzak edo zereginak egiteko zailtasunak dira; parte hartzeko oztopoak, azkenik, bizitzako eta gizarte-ko egoeretan parte hartzeko arazoak dira.

Ezgaitasuna kontuan hartu beharreko zeharkako bektorea dela aldarrikatzen dugu, Tokiko Alderaketaren ekintza politikoko ildo guztietan (Nazio Batuen 2006ko Nazioarteko Hitzarmena, Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzkoa).

2018-2022 Ezgaitasun Plana garatu ahal izateko, behar besteko giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak behar ditugu, baita plan hori gauzatzeko beharrezko tresnak ezarri ere.

82. | Eraikin publikoetan **braillez idatzitako seinaleak** jartzea, pertsona guztiek jakiten dezaten non dauden eta non kontsulta ditzaketen dituzten behar bereziak. Horrez gain, erakusmahai irisgarriak behar dira gurgildun aulkian dabilzan pertsonentzat, baita braillez markatutako eta hitzezko botoiak ere igogailuetan.
83. | **Automatikoki irekitzen diren ateak** jar daitezela sustatzea ikastetxeetan, osasun-zentroetan eta gainerako eraikin publiko guztietan.
84. | Udalaren mende dauden Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan askotariko ezgaitasunei erantzuna ematen zaiela bermatzea, **erizainen laguntzarekin** (diabetesa duten haurrak, irensteko arazoak dituztenak, arnasketa-arazoak dituztenak...).
85. | **Adinekoak** diren baina haien burua zain dezaketen bikoitei eta bakarrik bizi diren pertsonei zuzenduriko etxebizitzetan laguntza pertsonala, garbitzeko laguntza eta telelaguntza jaso dezaketela bermatzea, **autonomia-maiala egokiak** mantentzeko ahalik eta luzaroen.
86. | **Ezgaitasuna** txertatzea administrazio publikoak gauzatzeko dituen jardueren **agendan**.
87. | **Ezgaitasunari** eta irisgarritasunari buruzko prestakuntza eta sentsibilizazioa.
88. | Udaletan ezgaitasunari buruzko kontseiluak edo batzorde teknikoak sortzea.

89. | **Ezgaitasunaren ikuspegia** zeharka txertatzea politikako eta legegintzako ekimen guztietan, honako printzipio hauek kontuan hartuta: inklusioa, aukera-berdintasuna, diskriminaziorik eza eta irisgarritasun unibertsala. Halaber, genero-ikuspegia zeharka aplikatzea, ezgaitasunen bat duten emakumeen, nesken eta haien zaintzaileen behar-erizanei erantzuten dieten neurriak eta jarduketak artikulatuz
90. | Baliabideak areagotu eta berrikustea, lanean eta ikaste-txean **jazarpen-egoerak eragozteko**.
91. | **Irisgarritasun unibertsala bermatzea 112** zenbakian eta herritarren gainerako arreta-zenbaki guztietan.
92. | **Baliabidez hornitzea**, 39/2006 Legea, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa, betetzeko.
93. | **Genero-ikuspegia** aplikatzea ezgaitasunei buruzko politika, arau eta plan guztietan.
94. | Halaber, ekintza positiboko neurriak ezartzea ezgaitasunen bat duten emakumeek gizonak **bezainbeste aukera** izan ditzaten enpleguaren arloan eta parte-hartze politikoan.
95. | Ezintasunak familiei dakarkien **gainkostu ekonomikoa minimizatze**ko konpromisoa.
96. | **Irakurketa erraza** erabiltzea **udal-dokumentu guztietan**.

OSASUNA

Osasuna funtsezko giza eskubidea da. Osasuna da ongizate fisiko, sozial eta mental osoa. AHAL DUGU IRUÑAK uste du beharrezkoa dela gure herritarren ongizatea hobetuko duten neurriak sustatzea, prebentzioa abiapuntu hartuta.

97. | Autozainketa, ezagutzak eta osasunaren kultura sustatzea herritarren artean, bereziki adingabe eta gazteen artean.
98. | **Osasuna sustatzeko ekintzak programatzen dituzten elkarten ekimenak** babestea eta ezagutaraztea.
99. | Osasunaren arloko gizarte-desparekotasunak identifikatu eta **autonomia-gaitasun txikiena duten sektore kalteberenei zuzenduriko ekintza zehatzak** definitzea.
100. | Gizarte- eta osasun-zerbitzuak atzitzeko oztopo soziokulturalak identifikatu, zuzendu eta zaintzea.
101. | Mendekotasun fisiko edo psikikoren bat duten pertsonen behatokitza jokatzeko.
102. | **Osasunari hainbat diziplinatatik heltzea**, gizarte-zerbitzuak, kirola, kultura, osasungintza eta hezkuntza koordinatuz, sinergiak indartzeko.
103. | Haurtxoentzako prestatuta dauden bainugela publikoak eraikitzea toki estrategikoetan.
104. | Udalerria **transgenikorik gabeko gunetzat** jotzea, Europar Sarearen barruan.
105. | Eskola-adineko **haur guztien elikadura-beharrizanak** bermatzea.
106. | **Adingabe eta gazteei zuzenduriko herri-jantokiak sortzen** laguntzea, enplegua sortu eta elikagaien irisgarritasuna hobetzeko.

107. | **Doako eskola-gosari komunitarioak** sortzea beharra duten edo parte hartu nahi duten familientzat.
108. | Herritarrek elkarbizitzarako, aisialdirako edo jolasteko tokiakoko garbitasuna mantentzen parte har dezatela sustatu eta parte-hartzea hobetzea.

GIZARTE-ZERBITZUAK

Gizarte-desparekotasun modu berriak, langileen prekarietatea (batez ere gizartetik at gelditzeko arriskuan daudenen kasuan), biztanleriaren zahartzea, adineko pertsonen bakardadea eta adinekoek jasaten duten tratu baztertzaila, dagoeneko gainditutzat jotzen genituen gizon eta emakumeen arteko desparekotasunak, buruko osasun arazoak dituzten herritarren kopuruan izandako gorakada, migrazioak eta migratzaile babesgabeak, babesa eta aterpea eskatzen duten pertsonen kopuruan izandako gorakada, gure gizarteak bizi dituen bazterkeria eta gabetze modu berriak... Horrek guztiak **gizarte-zerbitzuen bestelako eredu bat** pentsatzera behartzen gaitu, eredu azkar, malgu, irisgarri eta eraginkorrago bat, batez ere zerbitzu eta baliabide horiek eskatzen dituzten pertsona guztientzat.

Beharrezkoa da gure hiriko gizarte-zerbitzu publikoek **diagnostiko erreal** eta eguneratua egitea **herritarren beharrazanei**, esku-ra dauden baliabideei, **eskaintzak duen eraginari** eta zerbitzuen eraginkortasunari buruz.

Iruñeko gizartearen errealitatea ezagutu behar dugu: nor artatzen dugun jakin, pertsonen profila ebaluatu, haien beharrazanak hauteman eta non esku-hartu erabaki.

Premiazkoa da **udalaren gizarte-zerbitzuen plan estrategiko** bat egitea. Gizarte Ekintza arloak bere misioa definitzeko **gizarte-estrategia** bat izan beharko luke. Plan estrategiko hori **gure sistemaren ibilbide-orria** izan beharko da, eta bertan zehaztu beharko dira misioa, helburua eta hartzailleak, baita esku-hartzeko ereduak eta baliabideen udal-zorroa ere. Kontuan hartu beharko du **sistemaren unibertsaltasuna**, eta herritar guztiei zuzendu beharko zaie, ez soilik sektore kaltetuenei. Planaren abiapuntua, noski, familia- eta gizarteratze-eredu berrien beharrazan eta eskakizunak izan beharko dira.

Premiazkoa da **pertsonak eta haien beharraz ardatz dituen arreta-eredu berri batean sakontzea**; sistema horren erdigunea ez dira profesionalak izango (beste agertoki bat izan beharko dute), ez eta orain arte definitutako antolakuntza-egitura ere. Hala, eredu horrek ildo estrategiko hauek izan beharko ditu, gutxienez.

- Ezarriko den esku hartzeko eredu gehiago izango da prebentziozkoa prestaziozkoa baino; hala, egungo eskariaren premiazkotasuna (itxaron-zerrenda) gairitu ahalko dugu, proaktibitate operatibo baten mesedetan, zeinek prebentzioa izango baitu lehentasun nagusi.
- -Komunitateko esku-hartzea berriz formulatu behar dugu, kontuan hartuta gure komunitate-egituraren eraldaketa sakonak eta bertako eragileak, dinamikak,

estrategiak, mugiarazten duten indarrak eta gizarteratze berriak; izan ere, horiek guztiek eragiten dute arlo komunitarioa ez izatea koordinatu beharreko baliabide huts, baizik eta komunitate-espazioan elkarri laguntzeko moduak aurkitu eta sortzeko modu berri bat, non laguntza horrek herritarren bizia eta komunitateak babesteko modu berriak sortuko baititu. Ikuspegi komunitario hori geografikoki egituratu behar da gure auzoetan.

Hori lortzeko, honako ekintza hauek proposatzen ditugu:

109. Adinekoak babesteko jarduketak. Mendetasun legean eta bertatik eratorritakoetan zehaztutako prestazioetatik harago.

Iruñean, adineko pertsona asko bakarrik bizi dira, eta horrek arriskuak dakartza. Donibane auzoan gauzatutako **“adinekoen paktua”** oso positiboa izan zen, eta beste auzo batzuetara hedatu behar da.

110. Mehatxu horri aurrea hartzeko beste jarduketa bat **“atari solidarioak” martxan jartzea** izan liteke.

Bi ekintza horiek auzoko hainbat eragile, auzokide, merkatari, ostalari eta baliabide inplikatzeko dituzte; izan ere, auzoko pertsona gehienak ezagutzen dituzte eta, horri esker, azkar hauteman dezakete ezagutzen duten norbait egunero bezala agertzen ez bada.

111. **Iruñeak eguneko zentro gehiago behar ditu.** Duela gutxi ehunka egoitza-plaza eskaini dira; alabaina, herritar askok zaintza behar dute egoitza batean sartu baino lehen.

- 112.** | **Haurrek arreta jasotzen dutela bermatu behar dugu bi-zi-garapen osoan zehar;** hala, geroko garapena kalte dezaketen arriskuei aurre hartzeko esku hartu behar dugu eta familiei laguntza eskaini behar diegu, baita haurrei be-
raiei ere, hazten ari diren bitartean.
- 113.** | Gaur egun, **gizarte-zerbitzuak baliabideak ekoizteko fa-
brikak** baino ez dira: bulegoak guztiz burokratizatuta dau-
de eta prestazio-kopuru handia kudeatzen dute. Errenta
bermatua eta horren kudeaketa da administrazioaren ko-
lapsoaren eragilea, neurri handi batean. Hala, beharrezkoa
da auzoetako unitateak karga burokratiko horretatik as-
katzea; **horretarako, prestazio hori kudeatzeko unitate
administratibo** zentralizatu bat sortu behar da, toki bakar
batean, pertsona erdigune duen gizarte-langintza zuze-
nagoa ahalbidetze aldera.

ENPLEGUA

Langabeziaren eta lan prekarioen aurka borrokatzea izango da gure konpromiso etengabea. Udalak **sustatzen duen enplegua kalitatean oinarritu beharko da, baita martxan jartzen diren laguntza eta dirulaguntzen bidezko banaketan ere.**

Enplegua sortzeko lehentasuna lana lortzeko zailtasun handiak dituzten pertsonak izan daitezela sustatuko dugu: epe luzeko langabeak (12 hilabete baino gehiago), emakumeak, ezgaitasunen bat duten pertsonak, etorkinak, 45 urtetik gorakoak eta 30 urtetik beherako gazteak.

- 114.** | Kanpora atera diren **oinarrizko udal-zerbitzuak berriz ere udalaren esku jartzea.**
- 115.** | **Prestakuntza-planak** garatzea, eta lehentasuna ematea **kolektibo kaltetuenei** eta lana aurkitzeko zailtasunik handiena dutenei: gazteak, emakumeak, 45 urtetik gorakoak, etorkinak edo ezgaitasunen bat duten pertsonak.
- 116.** | Partida bat gaitzea **udal-lanpostuetan lan egitea edo praktikak gauzatzea barne hartzen duten prestakuntza-ekintzak** gauzatzeko; ekintza horiek 45 urtetik gorako pertsonentzat eta epe luzeko langabeentzat izango dira.
- 117.** | **Hiria zaharberritzeko** lanei lehentasuna ematea, obra berriak agortzen diren heinean; aukera egokia da enplegua sortzeko eta, aldi berean, eraikinen estetika, energia-eraginkortasuna, segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko.
- 118.** | Udalak egiten dituen **kontratazioen baldintzen pleguan zenbait klausula sartzea lan-baldintza duinak bermatzeko**; gainera, kontratatutako obrak egiteko hautatutako pertsonen % 50, gutxienez, langabetuen zerrendatik atera beharko dira.
- 119.** | Eraikuntza-sistema berriei buruzko prestakuntza espezifiko ematea langileei, bereziki energia berriztagarrien arlokoa.
- 120.** | **Gizarte-kooperatiben sorrera** sustatu eta babestea.

121. | Zaintza- eta garbiketa-lanak egiteko sare kooperatiboak sustatzea.
122. | **Eraikinak zaharberitzeko udal-enpresa** bat sortzea, etxebizitzaren parke publikoa osatzeko.
123. | Babestutako enpleguari dagokionez. **Dirulaguntzen ordainketak bizkortzeko sistema bat ezartzea**; horri esker, saihestu egingo dugu enpresek, dirulaguntzen ordainketa atzeratzearen eraginez, interesei dagokien zenbateko handi bat ordaindu behar izatea.
124. | **Enplegu publikoko berariazko planak** sortzea **ezgaitasunen bat duten pertsonentzat**.

ENPLEGU PUBLIKOA

Ezinbestekoa da udala eredu izatea. Udaleko langileen taldea kontsolidatu behar da; horretarako, bitarteko kontratuak murriztu behar dira, eta egiturazko izaera duten lanpostuak aldi baterako kontratuekin betetzen ez direla bermatu.

- 125.** | Enplegu publikoari dagokionez, **neurriak hartzea ezgaitasunen bat duten pertsonentzat gorde behar diren lanpostuak errespetatzeko.**
- 126.** | Enplegu lagundua txertatzea sustapen-neurri gisa administrazio publikoan.
- 127.** | **Ezgaitasunen bat duten pertsonen barne-sustapena ahalbidetzeko diskriminazio positiboko neurriak** txertatzea, beste administrazio-maila batzuetara hel daitezen.
- 128.** | **Lanpostuak azkar egokitzeko** konpromisoa, eta premiaz egitea lanpostuaren eta ezgaitasuna duen pertsonaren arteko bateragarritasun-txostenak.
- 129.** | **Egungo enplegu publikoa ziurtatzea.**

MERKATARITZA

Tokiko merkataritza funtsezkoa da gure auzoen hazkuntze sozioekonomiko orekatua bermatzeko. Ekonomikoki irauteko gai den, balio erantsia gehitzeko nahia duen eta aldirietako auzoetara iristeko gai den saltoki batek aukera ematen du gune horretan enplegu lokalizatu gehiago sortzeko. Azken aldian, joera dago hirien inguruan nahiz erdigunean bertan saltoki handiak sortzeko; hori dela eta, uste dugu beharrezkoa dela joera hori orekatuko duten eta hainbeste maite ditugun gure saltoki txikiak biziraun dezaketela bermatuko duten politikak ezartzea. Halaber, **uste dugu beharrezkoa dela ekintzaile txikiak estimulatzea, haien diru-iturria sortzeko abenturan aurrera egin dezaten;** ezinbestekoa da ahalegin hori babestea. Hori dela eta AHAL DUGU IRUÑAK ekintzaileen jarduera errazteko eta lanean jarrai dezaketela bermatzeko (guztiz beharrezkoa zaigu) neurriak sustatzen ditu.

- 130.** | **Merkatari-elkarteen, ostalari-elkarteen eta auzo-elkarteen artean eztabaidatzeko eta elkar ulertzeko mahai** bat sortzea, elkarrekin harmoniaz bizitzeko akordioak erdietsi eta barruti bakoitzean dauden lokalen arteko desorekei konponbideak aurkitzeko.
- 131.** | Auzoetan **trafiko mugatuko kaleak** sortzea (Donibaneko Martin Azpilikueta kalean, adibidez), hurbileko merkataritza eta auzoetako bititza dinamizatzeko.
- 132.** | **Saltoki txikien bulego bat sortzea**, helburu hauekin:
- a. Saltokien poltsa** bat kudeatzea; horren bidez, negozioa itxi dutelako, erretiroa hartu dutelako edo beste arrazoiren batengatik saltoki bat utziko duten pertsonak eta saltoki horrekin jarraitu nahi duten ekintzaileak harremanetan jarri ahal izango dira.
 - b. Saltzaile berriei laguntzea ibilbide horren hasieran:** lizentziak izapidetzen laguntzea eta errentatzailearekin hitzarmen bat egitea udalaren bitartez, jardueraren hasierako urteetan alokairuaren prezioa murrizteko.
 - c.** Ikastetxeekin eta auzoko kolektiboekin **kanpainak** egitea, **auzokideak eta merkataria elkarrengana hurbiltzeko**. Adibidez: gymkhana bat egitea, auzoko haurrek dendetan ezkutatutako objektuak bila ditzaten, azken sarira iritsi arte.
 - d. Elkarteen ataria sustatzea**, saltokiek presentzia izan dezaten sare sozialetan; hori baliagarria da komunitatea sortu, produktuei ikusgarritasuna eman eta eskaintzak argitaratzeko.

- e.** Ekoizleak eta artisauak tokiko saltokiekin harremanetan jartzea, zero kilometroko produktuen salmenta sustatzeko.
- f.** Geolokalizazio-tresnen erabilera sustatzea, mugikorraren bitartez kontsultatu ahal izateko inguruan dauden saltokiak.
- g.** Erakunde-kanpainak egitea saltoki txikiak babesteko eta tokiko saltokietan prezioak garestiagoak direla dioen topikoa gezurtatzea.

ONDAREA

Ondarearen aktibazioa kontzeptuaren alde egiten dugu, baliabide kultural guztiak hautatu eta antolatuko dituen gune eta ondasun kultura babestuen politika baten barruan.

- 133.** | **Polizia berdea** eratuko dugu, hiriko gune berdeak, ondare arkeologikoa eta monumentuak zaindu eta babesteko.
- 134.** | Esku pribatuetan “balioan jarritako” **udal-jabetzako ondare-elementuak** berriz ere udal-kudeaketaren esku jarriko ditugu.
- 135.** | **Monumentuen seinaleztatzea eta irisgarritasuna** hobetu nahi ditugu, teknologia berriak erabiliz.
- 136.** | **Gure ondare historikoarekin eta haren kontserbazioarekin erlasionaturiko jarduerak** martxan jarriko ditugu hezkuntza-komunitatean; horretarako, elkarlanean arituko gara ikastetxeetako zuzendaritza-taldeekin, guraso-elkarteekin eta auzo-elkarteekin.
- 137.** | Kultura-ekimenak sustatuko ditugu ikasleen artean, **gure hiriko kultura-, arte-, arkeologia- eta monumentu-ondare** ezagutu dezaten.

KULTURA

Kultura altxor bat da, eta hainbat arte-adierazpenez osatuta dago. Funtsezkoa da hori sustatu eta garatzea; horretarako, urtean zehar Iruñeko kultura ezagutarazteko beharrezkotzat jotzen diren jarduerak antolatzekeo behar diren baliabide ekonomikoak jarri beharko dira. AHAL DUGU IRUÑAren ustez, lehentasun handia du artearen arloko prestakuntza sustatzeak, arlo guztietan, baita Iruñerako Kultura Plan Estrategiko bat garatzeak ere, elkarte, enpresa, kolektibo, artista eta herritarrekin. Horrez gain, herritarrek kalean parte har dezatela sustatu nahi dugu, espazio publikoa berreskuratzeko; horretarako tresna arte herrikoia izango da, baita hartzaile berriak bilatzea xede duen sorkuntza-gune autogestionatu bat ere.

- 138.** | Kulturaren bidez **garapen pertsonala** ahalbidetzea, ulertuz beharrezkoa dela gizarteak artea sortu ahal izatea eta arte hori atzitu ahal izatea.
- 139.** | Kultura sustatzea, zerbitzu publiko gisa ulertuta, hau da, gizartearen kontzientzia gisa eta transmisio kultural, soziologiko eta integratzailearen babesle gisa.
- 140.** | Ikerketaren eta **kulturaren arloko elkarteak** sustatzea, baita ekimen kultural **autogestionatuak** edo ekonomia sozialari loturikoak babestea ere.
- 141.** | Hirian egiten diren antzerki-, zinema edo musika-**jaialdiak** berezko jardueratzat hartzea, hiriko auzoetara hedatzea eta ikastetxeekin, kolektibo sozialekin eta auzokideekin elkarreragin dezatela sustatzea. Hala, artearen sektoreko profesionalek kulturaren arloko prestakuntza garatu eta kultura hedatu ahalko dute ahalik eta herritar gehienen artean.
- 142.** | Kolektibo kulturelek bultzatuta hirian sortzen diren askotariko ekimen kulturalak sustatzea.
- 143.** | **Lokalak** eta gazteen kulturguneetarako baliabideak **lagatzea**, gazteen elkarteak sustatzeko eta elkar aurkitzeko, eztabaidatzeko eta kontrastatzeko tokiak izan ditzaten.
- 144.** | **Giza eskubideak errespetatzen ez dituzten** jarduera eta ikuskizunei **laguntzak** eta dirulaguntzak **kentzea**, baita animaliak edota ingurumena babesteko beharrezkoa denean ere.
- 145.** | **Sentsibilizazio-tailerrez** eta arte-ohiturak sortzeko tailerrez osaturiko programazio bat egitea, auzoetan, elkarreetan, edota hezkuntza arautu nahiz arautu gabeko zentroetan gauatzeko.

- 146.** | Sorkuntza kulturalera **gune kolektiboak** sustatzea, gune ireki gisa, kudeaketa publiko nahiz pribatuarekin. Bertan, gazteei ekiteko aukera emango zaie prezio sinbolikoa duten lanerako tokiak eskainita; gainera, erabilera anitzeko aretoak ere egongo dira, hitzaldiak antolatzeke, adituekin elkartzeko, ideiak trukatzeko, kolaboratzaile posibleak ezagutzeko, eta estatuko nahiz nazioarteko trukeak antolatzeke.
- 147.** | Lanerako eta erakusketak egiteko ohiko tokiei alternatibak aurkeztea, eta herritarrek **hiriko espazioak** berreskura ditzatela sustatzea, artearen eta sorkuntzaren bidez ideiak trukatu eta adierazteko toki gisa.
- 148.** | **Udalean figura tekniko** bat sortzea diziplina anitzeko sare artistiko bat bultzatzeko eta kulturaren arloan lan egiten duten kolektiboaren arteko harremana eta babesa sustatzeko.
- 149.** | Hirian **informazio-panelak** jartzea, non hiriko eskaintza kulturala eta herritar nahiz bisitariak eskura dituzten aukerak argi azalduko baitira.
- 150.** | **Euskara** eta haren adierazpenak babestu, defendatu eta sustatzea, hizkuntza bizia eta nafar guztien **ondare ukiezina** baita.
- 151.** | **Dantza**, abesti, tradizio eta ohitura zaharrak **sustatzea**.
- 152.** | Hirian bizi diren beste kultura batzuen **aniztasuna** sustatu eta babestea, elkarbizitza normalizatzeke.
- 153.** | Iruñean liburuak trukatzeko sarea (BOOKCROSSING) hedatzea eta **liburu**-etxolak jartzea parke eta plazetan.
- 154.** | Udalaren kudeaketa kulturala **gardenagotzea**.

HAURRAK

Familiek behar handia dute haur-eskolen ordutegiak eta laneko ordutegiak bateratu ahal izateko. Familia gehienetan, bateratze hori ezinezkoa da arratsaldean lan egiten dutenen kasuan. Horrez gain, ez dago alternatibarik 9:30ak baino beranduagoko sarrera-ordutegietarako (horri esker, haurrek denbora luzeagoa eman lezakete gurasoen zaintzapean). Errealitatean, laneko ordutegia eskolako ordutegira egokitzen duten pertsona gehienak emakumeak dira, izan laneko ordutegia murriztuta, izan lanaldi partzialak onartuta. Horrez gain, familia batzuetan, lanpostu bati uko egiten diote haur-eskolaren kuota soldata baino altuagoa delako.

Hori dela eta, honako hau proposatzen dugu:

155. | **Haur-eskoletako plaza-kopurua areagotzea**, benetako eskarira egokitzeko.
156. | **Ordutegi malguak**, gurasoek lana eta seme-alaben zaintza bateratu ahal izan ditzaten.
157. | Amatasun eta aitatasun kontzientea sustatzea, baita hezkuntza eta **hazkuntza errespetuzkoa**, naturala eta atxikimenduzkoa ere.
158. | Haurrak eta gurasoak elkartzeko **gune erraztaileak** sortzea, esperientziak partekatu eta hazkundearen ondorio negatiboak saihesteko, bereziki hasierako uneetan.
159. | **Ama-esnearen banku** bat sortzen laguntzea.
160. | **Indarkeriarik eta sexismorik gabeko jostailuak** eta jokoak bultzatzea; ez dago neskentzako edo mutilentzako jostailurik.
161. | Jolas askea eta **naturekiko kontaktua** ahalbidetzen duten guneak sortzea proposatzen duten ekimenak sustatzea; gune horiek atseginagoak izango dira, jolasteko egokিতuta egongo dira, ez dute trafikorik izango eta estalita egongo dira.
162. | **Ezgaitasunen bat duten hurrek gainerakoekin batera jolas dezaketela** bermatzen duten parkeak sustatzea.
163. | **Nerabezaroa hastear daudenen** eta nerabeen **parkeak** egokitzea, eta haur-parkeetatik bereiztea.

MEMORIA HISTORIKOA

- 164.** | Erorien monumentua: Ez dugu nahi Faxismoa gorai patzen duen monumentu bat hala manten dadin eta gure hiriaren garapena eta antolamendua baldintzatu dezan.
- a.** Historia garaileen ikuspuntutik kontaktzen duen monumentu bat da. Historia guztion ikuspuntutik kontaktzeko unea da eta, hortaz, monumentuek hiri honen benetako historia islatu behar dute.
 - b. Hiria banatzen** duen monumentu bat da, eta ez du zenbait auzoren jarraikortasuna ahalbidetzen, adibidez Lezkairu edo Arrosadiarena.
 - c.** Egoera txarrean dagoen monumentu bat da, erabilerara ematea zaila da (erabilgarritasunik al du?) eta **mantentzeak kostu handiak** dakartza.

AHAL DUGUn pertsona batzuek **eraistea** defendatzen duten arren, prozesu parte hartzaile lotesle bat egin nahi dugu hiritarrek monumentuaren etorkizuna erabaki ahal izan dezaten.

- 165.** | Indarrean dagoen **Memoria historikoaren legea** betetzea eta Memoria demokratikoaren legea berrezartzea sustatzea.
- 166.** | Biktimen familiak **laguntzeko bulego** bat sortzea.
- 167.** | Babesa eskaintzea eta memoria historikoari buruzko **iker-kuntza** indartzea, hura jakitera ematea eta, bertan, lapurtutako haurren auzia ere barne hartzea.
- 168.** | Biktimei buruzko **datu-baseak** erabil eta jakitera eman daitezten sustatzea, biktima **guztiak** aitortze aldera.
- 169.** | Memoria historikoari buruzko ezagutza eta informazioa **sustatzea** ikastetxeetan, elkarteetan eta unibertsitatean.

KIROLA

Hiritar guztiek aukera berdinetan kirola egiteko aukera dutela ziurtatuko duen udal bat; batetik, garapen pertsonal eta sozialerako eta osasunerako onuragarria delako eta, bestetik, ahal den neurrian, kirola hirian enplegua sortzeko erabiltzeko.

- 170.** | Udalaren kirol-instalazioak. **Kirola kudeatzeko udal-enpresa** bat sortzea, beste hiri batzuetan gauzatu den eredia -Logroño- lau urtetan kudeaketa horren % 50a berriro udalekotuz. Erabilera askeko instalazio finko berriak sortzea (“Lezkairu Cuatro Vientos” eredia dagoeneko espazioa erabiltzen ari den toki batzuetan: Zitudadela).
- 171.** | Biztanleen sektore ezberdinen **jarduera fisikoa bultzatuko duten proiektuak** sustatu eta abian jartzea. (Kirol-proiektuak sustatu eta abian jartzea berdintasunaren ikuspegia kontuan hartuz eta osasunetik eta gizarte-ongizetatik sentsibilizatuz, zerbitzu hori eskuratzea zailagoa duten biztanleen sektoreak lagunduz: helduak, gizarte-bazterketa arriskua duten eremuak, immigrazioa, etab.). Atal honetan, sentsibilitate berezia eta nabarmena izango dugu emakumeen kirolerako sarbidean dituzten zailtasunekin, haien lan-zamarengatik, ordutegiengatik, adinarengatik...
- 172.** | **Crossfit egiteko ‘farinato race’** espazioak sortzea proposatzen dugu.
- 173.** | Kirola eta ikuskizunei buruzko programak garatzea **kirola hedatze** aldera, garapen pertsonaleko ongizate psikosozial, inklusibo eta osasungarri baten parte gisa.
- 174.** | Agintaritza edukatiboekin udalaren kirol-instalazioen lehentasunezko erabilera koordinatzea eskola-orduetan heziketa fisikoa garatzeko eta, horrela, ikastetxe publikoen sarbidea ahalbidetzeko.
- 175.** | **AHAL DUGU IRUÑA**ko kideok kudeaketa garbi, garden eta bidezkoa proposatzen dugu, non ez den desparekotasunik egongo langileen artean, udalerriko hiritarrekiko hurbilagoa izango den kudeaketa bat.

- 176.** | **Astelehenetik igandera eta jaiegunetan instalazioak itxita egoten diren orduen kudeaketa** irabazi-asmo-rik gabeko entitateentzat -izan deportiboak, auzokoak edo kulturalak- lehiaketara ateratzea proposatzen dugu, errentagarritasun soziala bermatuko duten baldintzen agiri argi batekin.
- 177.** | Kirol-entitateekin **kolaboratzea**.
- 178.** | Kirol-ekitaldiak **sustatzea**.
- 179.** | Auzoetan adin guztietarako **kirol-ekipamendu estaliak** ezartzea.

HEZKUNTZA

- 180.** | **0-3 eskola publikoak doakoak** izan daitezzen defendatzen dugu.
- 181.** | 0-3 ikastetxe-kopurua areagotzea **hizkuntza-ereduak eskariaren arabera** aztertuz.
- 182.** | Ikastetxe publikoetako **instalazioak** mantendu eta **hobetzea**.
- 183.** | Iruñari buruz irakastea (Haur, Lehen eta Bigarren eta Hezkuntza eta LH).
- 184.** | **Ikastetxeetako jantokiak berriro publikizatzea** sukaldeko espazioak pixkanaka egokituz bazkaria ikastetxeetan prestatzeko hurbileko produktuekin eta, gero eta portzentaje handiagoan, ekologikoekin. Espazio horien insonorizazioan aurrerapausoak ematea.
- 185.** | Jaiegunetan **hezkuntzako eta aisialdiko eskaintza areagotzea**.
- 186.** | **Eskola-porrota eta absentismoa murrizteko** berariazko programak sustatzea.
- 187.** | Hezkuntza ez-formala eta kirol-heziketa bultzatzea.
- 188.** | Hezkuntzari buruzko udal-politikak eta haien lehentasunak definitzea **berdintasunaren, inklusioaren eta ongizate-sozialaren printzipioen** arabera, elkartasunezko, errespetuzko eta guztion ongizatearen aldeko jarrereri bide emanez.
- 189.** | Opor-garaian ikastetxeak irekitzea.

- 190.** | **Ikastetxeen mantentzeari** buruzko plan bat sortzea, aldez aurretik ikastetxeen egoera eta premiak definituko dituen eta lehentasunezko jarduketetan hurrenkera bat ezarriko duten txostenak prestatuz.
- 191.** | Ikastetxeak mantentzea xede duen kontu-saila areagotzea.
- 192.** | Nafarroako Gobernua premiatzea ikastetxeetako **jolas-tokiak naturalizatza**ra, zementuzko eremua murriztuz eta sormena, ikerkuntza eta harreman sozialak sustatuko dituzten elementuak sartuz (baratzak, lorategiak, artea, zientziak, jolas kolaboratiboak...).
- 193.** | Dagoeneko existitzen diren informatika-gelak erabiltzea biztanleen **eten digitala** murrizteko.
- 194.** | **Eskolaz kanpoko doako jarduerak** programatzea pertsona guztiek, hiriko auzo guztietan, aukera berdinak dituztela ziurtatzeko. Toki publikoak diren aldetik, ikastetxeak eta liburutegiak eskola-ordutegitik kanpo irekitzea.
- 195.** | Eskola-materialaren eta **liburuen doakotasuna**, beste irizpide batzuen arabera, haien artean, familiaren errenta maila.

GAZTEAK

Neska gazteak lan-merkatuan sartzeko eta gizartean parte-hartze aktiboagoa izateko aukera izan dezaten, hainbat neurri hartzea beharrezkoa da, halako moduz non lehenengo esperientziei eta independentziako lehenengo urteei aurre egin ahal izango dieten hainbesteko presio ekonomikoa izan gabe. Batetik, **autoenplegua sortzea sustatu**, gazteen **asoziazionismoa** bultzatu eta egiten dituzten praktiken baldintzak hobetu behar ditugu; bestetik, prestakuntza ikastaroak egitea ahalbidetu behar diegu (unibertsitarioak eta beste edozein motakoak).

- 196.** | Laguntzak eta **dirulaguntzak** hobetzea **ekin** nahi duten gazteek egin ahal izan dezaten haien diruaren eta aurrekontuaren hain mende egon gabe, jarduera Iruñeko gizar-tearen onurarako izan dadin sustatuz.
- 197.** | Gazteek haien **gurasoen etxea uztea** xede duten laguntzak **18 urteetan** kontsolidatuko dira.
- 198.** | **Prestakuntza** babesteko **bekak** areagotzea, unibertsitate mailan eta beste prestakuntza-esparru batzuetan.
- 199.** | **Lan-trukea egiteko programa** bat sortzea, Iruñeko gazteek laguntza bat eta lan-eskaintza bat jaso dezaten hila-bete batzuetan beste lurralde batean bizi eta lan egiteko eta, bueltatzean, Iruñean sektore berdineko enpresa batean lan egiteko eta enpresa hori haien ezagutzekin abe-rasteko.
- 200.** | **Alokairu sozialeko** etxebizitza publikoen sare bat sortzea etxebizitzaren ehuneko bat gazteentzat erreserbatuz, betiere profil sozio-laboralari eta eskatzaileen adinari erreparatuz. Era berean, alokairuaren eskatzaile eta eskaintzaileen poltsak sortuko dira toki mailan eta bitartekaritzaren lana egingo da hutsik dauden etxebizitzak gazteak emantzipatzeko berrerabil daitezen.
- 201.** | Pamplona-Iruñeko gazteen **parte-hartzerako eta ahal-duntzerako ildo** erakargarriak sustatzea.
- 202.** | Gazteen **aisialdiaren** eta entretenimenduaren egungo **ereduari** buruzko sentsibilizazio-plan bat egitea.

- 203.** | **Iruña Gaztea III. Plana** prestatu eta garatzea. – Gazteei bideratutako programak garatzea, arreta berezia eskainiz haien ahalduntzea susta dezaketen horietan.
- 204.** | Gazteek garatutako ekimenak **babestea**.
- 205.** | Gazteriaren Kontseilu Lokal bat sortzea.
- 206.** | Hiria parte hartzeko eta erabakitzeko espazio gisa, non gazteek, formalki antolatuta edo ez, eta talde dinamizatzaile baten laguntzarekin, definituko duten hiri honetako gazteentzat zeintzuk diren larrialdizko-ildoak.
- 207.** | Hiriko gazteen egoerari buruzko txostenak idatz daitezzen sustatzea, bereziki gazteen behartutako migrazioaren kausei eta ondorioei buruzkoak.
- 208.** | Eraikitze-prozesu osoa beharrezkoak diren atalekin artikulatzea (enplegua, osasuna, hezkuntza, etxebizitza, gizarte-zerbitzuak, berdintasuna, hirigintza, kultura, ingurumena, etab.).
- 209.** | Gaztediaren Etxearen dinamika eta funtzionamendua **berriro udalekotu** eta eraldatzea, hiriko gazteen zerbitzura jartzea, eskuragarri dauden giza baliabideak eta baliabide materialak egokituz ekipamendu hori ekimen sozial eta kulturalen haztegi bihurtu dadin.
- 210.** | Udal titulartasuneko espazioak lagatzea gazteen **asoziazionismo-ekintzetarako**, kolektibo horien autokudeaketa sustatuz.
- 211.** | Gazte Bermearen plana berregituratzea gazteen lan-egoera eta lan-munduan txertatzea hobetzeko.

- 212.** | Praktikak egiten ari diren pertsona guztien eta haien egoeraren erregistro bat sortzea eta kontrol-protokolo egokiak prestatzea praktikek adostutako betebeharrak betetzen dituztela ziurtatzeko.
- 213.** | Dagoeneko sortu diren gazteen elkarteei buruzko azterlanak egitea eta, horrela, etorkizunean sortuko direnei emango zaien laguntzaren kalitatea hobetzea.
- 214.** | Jokoari eta apustuei buruzko Iruñarentzako araudi espezifikoko bat egiteko aukera aztertzea.

KOMUNITATEAREN GARAPENA

Komunitatearen garapena lurralde edo auzo batetako bizilagunen garapen kolektiboa lagundu eta sustatzen duen guztia da. Komunitatearen garapenerako planen xedea eremu edo auzo jakin batetako bizikidetzaren indartzea eta bertako arazo eta zailtasunentzako konponbidea bilatzea da, betiere auzoko biztanleen eta sare sozialen parte-hartze aktiboarekin.

Garapena ez da soilik bizikidetzaren zailtzen duten kausa ekonomikoak aurre egitea, aitzitik, dimentsio osoago bat izan behar du: hezkuntza, osasuna, inklusioa, jasangarritasuna, elkartasuna, ekonomia, feminismoa, parte-hartzea eta ahalduz buruzkoa.

Komunitatearena, eremu edo auzo batetako biztanle guztiak hartzen dituena: haurrak, helduak, adinekoak, emakumeak, haien jatorri sozial edo etnikoa ezein dela ere: ijitoa, arabiarra, hego sahararra, latinoak, nafarra edo estatuko gainerako errealitateetakoak.

Komunitatearen garapena bizikidetzarako espazioak eta jarduketak sortzea gisa ulertuta, non auzo bereko biztanleek bizikidetzaren sortu eta indartu ahal izango duten: **inklusiboa, harrerazkoa, parte hartzailea, solidariora, feminista, jasangarria eta kulturartekoa**. Udala honelako erakunde bilakatuko da: **hurbila, deszentralizatua** eta auzokideen **partaidetza** izango duena.

- 215.** **Garapen komunitarioari buruzko planak** prestatzea auzo guztietan, detektatutako zailtasun sozial gehiago dituzten horiek lehenetsiz. Dimentsio integrala duten planak, auzokide guztien eta inplikaturako gizarte-eragileen parte-hartzearekin egindakoak, elkarri laguntzeko espazioak indartuko dituztenak eta kolektibizatuko dituztenak bizitzari eusteko lanak, arropen garbiketa, sukaldaritza, garbiketa, ludotekak, helduen arteko laguntza, hiri-baratzak.
- 216.** **Esku-hartze komunitarioko ekipo** bat sortzea, Iruñeko auzo guztietan esku-hartzeko komunitarioari buruzko plan bat abiaraziko duena. Haietan auzoetako unitateak, elkarteak eta auzoetan jarduten duten entitateak era aktiboan inplikaturak egongo dira, baita auzo horretan presentzia duten beste udal zerbitzu batzuk eta auzokideak ere.
- 217.** Gizarte-zerbitzuen **auzoko unitateak berregituratzea**, komunitatearen garapenera buruzko planak dinamizatzeko, haien prebentziorako jarduketak indartuz eta zailtasun eta gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen premiak asetzeko jardutea alde batera utzi gabe, giza baliabideak indartuz eta jendeari arreta eskaintzeko protokoloak hobetuz.
- 218.** **Komunitate Zentroen** baliabideak eta bitartekoak areagotzea, egun dauden instalazioak eta kudeaketa hobetuz eta gainerako auzoetan berriak sortuz.
- 219.** **Zainketak** premia eta erantzukizun sozial eta kolektibo gisa txertatzea, **hurbileko zerbitzuen** sare bat garatuz, helduak diren eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzea xede izango dutenak, **laguntza emateko sare komunitarioak** (boluntarioratza) eta zainketen autokudeaketarako taldeak indartuz. Horretarako, auzokideak eta merkataria inplikaturak pertsonen errealitate ezberdinen jarraipena

egiten eta haiek lagunduz, gizarte-zerbitzuekin eta gainerako gizarte-entitateekin koordinatuz.

- 220.** | **Auzo guztietara** haur eta nerabeentzako zerbitzu sozio-komunitarioak **hedatu eta** haiek **indartzea**, haien prebentzio-izaera eta -jarduketa indartuz. Arreta berezia eskainiko zaio eskola-porrotari eta -segregazioari aurre egiteko **talka-plan** bat egiteari, eta neurriak eta baliabideak bultzatuz udalean haurren pobrezari aurre egiteko.
- 221.** | Ijitoen komunitatearen aitortza instituzionala, apirilaren 8ko Ijito Herriaren Nazioarteko Egunaren ospakizuna sendotuz, eta haren historia eta kultura balioetsiz, eskola curriculumean sar dadin proposatuz.
- 222.** | Arraza-, etnia- eta gizarte-jatorriagatiko **bazterketaren aurka borrokatzeko neurriak** garatzea, bazterketaren biktimentzako laguntza-zerbitzuak babestuz eta heziketa- eta sentsibilizazio-jarduketak garatuz.
- 223.** | Migratzaileak artatu eta orientatzeko protokoloak berrikustea.

BIZIKIDETZA ETA HIRITARREN SEGURTASUNA

Hiritarrekiko hurbila izango den polizia bat nahi dugu, prebentiboa, hiritarren premiei erantzuteko gai izango dena.

Udalaren erantzukizuna da, udaltzaingoaren bidez, erne egotea eta harkorra izatea delitu bereziei dagokienez, adibidez, indarkeria matxista, askatasun sexualaren kontrako erasoak, laneko eta eskolako jazarpena, ziber-jazarpena, gutxiengo etnikoen eta LGBT kolektiboen kontrako indarkeria eta delitu informatikoak. Horretarako, polizia-gorputza gai izango da komunitatea babes-teko, haren disfuntzioak hautemateko-disfuntzio horiek biztanleentzat kaltegarriak izan baino lehen- eta egoerari eusteko, sistemak porrot egin duenean premiazko neurri gisa.

- 224.** | Gazteentzako berariazko programak **indarkeriak prebenitzeko**.
- 225.** | Hiritarren eskubide eta betebeharrei buruzko **prestakuntza**, baita hiritarren eskuliburuari buruzkoa ere, administrazioarekin egin beharreko izapide ohikoenak ezagut ditzaten.
- 226.** | Udalak bizikidetzaren aldeko eta indarkeriaren aurkako **foroak** bultzatzea.
- 227.** | Gune ilunetan **ikusgarritasun-eremuak** areagotzea.
- 228.** | Erasotzaileei eta biktimei buruzko informazioari dagokionean, **beste segurtasun-indar batzuekin kolaborazioa** areagotzea.
- 229.** | Neskak eta emakumeak **autodefentsan** gaitzeko ikastaroak egitea.
- 230.** | Udaltzaingoak **komunitatearenak diren gauzak defendatzeko** gauzatzen dituen jarduketak iragartzea.
- 231.** | **Gatazkakortasunari buruzko mapa** bat egitea gizarte-eta segurtasun-baliabideak haren ezaugarri eta premien arabera egokitzeko.
- 232.** | Delituen **prebentzioa** bultzatzea, gizarte-zerbitzuekin eta poliziarekin kolaboratuz: hitzaldiak ikastetxeetan, kolektibo zahargarriak, adin txikikoak artatzea, etab.
- 233.** | Segurtasunaren **kudeaketa publikoa ziurtatzea**.
- 234.** | Udalean **psikologia-aholkularitza** bat sartzea ikastaroak, mintegiak eta hitzaldiak emateko udaltzaingoari haien lanak eragiten duen estresa kontrolatzeko.

- 235.** | Bide-hezkuntza ematea adin txikikoei zein helduei.
- 236.** | Premiak berregituratu eta aztertzea, beste gorputzekin bikoiztasunak saihesteko eta haien eginkizuna hobetzeko.
- 237.** | Atestatuetako eta trafikoko langileak hiriaren premietara egokitzea.
- 238.** | Udaltzaingoak erabiltzen duen **sistema informatikoa eguneratzea** eta udaleko gainerako sistema informatikoekin bateragarri egitea.
- 239.** | Auzoetako **hurbileko poliziaren** irudia indartzea eta gatazkak konpontzea.
- 240.** | Elkarte eta kolektiboen bisita-protokoloak sortzea udaltzaingoaren eginkizuna gardena izan dadin eta hiritarrek udaltzaingoak nola lan egiten duen jakin dezan.

GARAPENERAKO LANKIDETZA

Garapenerako lankidetza **nazioarteko konpromiso historiko** bat eta giza eskubideen arloko betebeharrak da, “inor atzean ez uztea” printzipioa ziurtatzen lagundu dezakeena. 2015eko irailean, Nazio Batuetako 193 kideek Garapen Jasangarrirako Agenda 2030 onetsi zuten. Bost ardatzetan antolatuta dago: **planeta, pertsonak, oparotasuna, bakea eta aliantzak**.

Aukera paregabea da ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren garapen ereduak eraldatzeko eta **jasangarria, bidezkoa eta inklusiboa** izan dadin lortzeko.

AHAL DUGUko kideok honakoen aldeko apustua egiten dugu:

- 241.** | Udalaren aurrekontuaren % **0,7**-aren konpromisoa garapenerako lankidetzaz, ekintza humanitarioa eta garapenerako heziketa xede duten proiektuentzat.
- 242.** | Udalaren politikak eta planak berrikustea eta **Garapen Iraunkorreko Xedeetara** egokitzea.
- 243.** | **Erosketa publiko etikoko** irizpideak ezartzea eta produktuak kontsumitzea.

Elkarlanaren *indarra*

Ahal Dugu PAMPLONA
PODEMOS.

podemospamplona.info
@PodemosPamplona
www.facebook.com/PodemosPamplonaAhalDugu